

{ koaderno } Itzea Urkizu Arsuaga

Bi mila metro eta orban bat

Burua pixka bat beheratu, erlojua mar-txan jarri eta hasi egin naiz. Hotz ego-ten da hasieran, baina minutu gutxiko kontua da, lehen hotzikara zena, gero goxotasun umel bilakatzea. Bi mila me-tro; hori da, ekainean ama izan nintze-nez geroztik, neure buruarekin hitz egiteko hartzen dudana distantzia, edo denbora, edo ez dakit nik zein unitate. Bi mila metro igerian, eta auskalo zenbat arnas pentsamendutan, porlanak eutsitako ur-pu-tzu erraldoi honetan.

Crawlean, badirudi piszinako lurzorukoak aktuali-tatea lerroburuz iragarri nahi dutela: ezer ez doa zuzen. Pandemia eta kiroldegiaren funtzionamen-dua uztartzeko igerilekuko kaleak estutu dituzte, lurzoruko marrak eta ur gaineko bideak ez datoz bat eta, orain, sekula bai-no ohikoagoa da, kortxo-ilararen aurka kolpe bat hartu eta duintasunez ige-rian jarraitu nahi duten igerilariak ikustea. Tira, covid garaian denok bizi gara, pixka bat, kortxo-ila-raren aurka; kolpeka eta ez oso duin.

Banoa aurrera, bizkarrez gero. Ama izan aurretik ere etortzen nintzen, gerri aldeari pisu pixka bat ken-tzearen plazeraz gozatzera. Sabel handia eta borobi-la izan nuen haurdunaldi amaieran, eta maite nuen luze eta zabal hura laztantzeta. Baita hilabete gu-txian hazitako azal pusketa horrek ispiluan erakus-ten zidana ere: silueta kurbaduna, polita bere ho-rretan, eta politagoa irudiaz harago iradokitzen zuen guztian. Koadro errealista bat, gorputz batetik bik nola arnasten duten trazu finez marraztuz.

Artelan iragankorra zen, ordea, eta, konturatzerako, silueta hark hilabetetan ondutako gorputz txiki eta hauskorra bularrean nuen, epel-epel. Ate bat, maitasunaren, zaintzaren eta kezkaren unibertso

berri baterako; gure Atseginen baratze partikularre-rako. Eta, Pello semearen etorrerari lilura izpirik kendu gabe, baina amatasun berri honek dakartzan zamak ere baratze eder horretan sartuz, piztu zi-tzaidan neure buruarekin sekula piztu zaidan hase-rerrik handiena.

Ustez baditudalako bizitzarako ideal batzuk, bes-teak beste, feminismoaren oinarriei josten zaizkie-nak. Baina, gero, iristen zaizu zesareadun erditzeos-tea, jartzen zara ispilu aurrean, eta haren islak oihuka deseraikitzen dizu aurrez soinekoak eder es-tutzen zizun gorputz berarekiko maitasuna. Utikan, autoestimua eta honaino ekarri gaituen gu hori maitatzea. Patriarkatuak ere edaten duela gu guz-tion arnasatik, alegia. Eta, batzuetan, neronek ere ez dakidala, endorfinek bakarrik sortutakoa ote den,

Iristen zaizu zesareadun erditzeostea,
jartzen zara ispilu aurrean, eta haren
islak oihuka deseraikitzen dizu aurrez
soinekoak eder estutzen zizun
gorputz berarekiko maitasuna

osatzear naizen bi mila metro hauek ematen dida-ten plazera. Zein unitatetan neurtzen ote den auto-exijentzia...

Ez nuke fribolitatez aritu nahi, ezpada justu kon-trakoa: eraldatzea da, bizitza bat munduratu duen gorputz bati dagokion gutxienekoa. Bederatzi hila-beteko iraultza, buruan bakarrik ez, gorputzean ere markatuta geratzea. Neurri berean dagokio, bi-zitza bat munduratu duenari, marka horietatik bi-zitzari begiratzea, eta horretan dihardugu, horixe garelako: maitasun orban bat, betiko, norbaiten azalean. •